## A R G I   A R T I F I Z I A L A K

0=0=0=0=0=0=0=0=0=0=0=0=0=0=0=0=0

Hona beste karta bat:" IGEL maitea.Ez naiz oso zaarra,baina nere andreari zuen gazte egoiteko xixtema ( alegia amorioa) proposa diodanean Bilbartarren ipuin batekin erantzun dit,hona ipuina:

Bein Peru txikia eta Juanito gorria bar batean algar topatu eben-

- Nola zabiz txikija ?
- Txarto gorrija.
- Biarra?
- Lana esan edo biarra esan beti txarto gorrija.Emen ez zeo fortuna egiterik ta!
- To txikija etxekik nola fortuna egin.Argentina-ra joango An,errez dok,dirua palakaz biltzen dok eta,bazekik nola. Andrazkoek gizasemeok txera deituten ei ditubez oiean "zerak" egiteko ta gainera andrak dizkak berreun pesetak ematen.

Etxera joan zen txikia eta andreari eltzean -

- Neure maletie prestik euki'azan bijar Amerikatara noan.
- Ene! baina biarrik arkitu al dozu,espezialista ez zara ta
- Bai arrapatu dinat.
- Esaten ez badidazut zer lan egitera abioan ziran es deuts maletarik emongo,gainera Poliziari salatuko iatzut etxea abandonatuta zoazala.
- Bueno,esango dinat zer egingo dotan.Argentina-n andrazkoa dabiz gizonezkoen ostean eta etxera eruaten "zetzeko" ta andrak aldi bakotxean berreun pesta emoten.
- Baina illabetean larreun pestekin zer egin biar dosu.

Hona nere andraren erantzuen zuen "zera" proposatu diodanean.Ni txikijaren modukoa omen naiz.Egia esan ,iretargi xuritan,illabete bein itsasoaren gisa aski gora naiz .Zer egin bear dut ?

IGELAREN ERANTZUNA.

Itsasoa bezala baldin bazira illargi edo argizagiaren indarpean argi artifizialak salzten ahal dizkitzugu.Globu elektrikuak dira illargiaren m pamunduarekin.Holako bat zure lo-gelan ezartzen,ja baduzu gau guziez itsasoa gora izango duzu.

BIOTZ HAUTSIEN LAGUNTZALEA

Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboko aldizkaria